

BERRI PAPER

15. ZK.

EUSKARA



MARIENEA BASAURI
2024 · 2025 IKASTURTEA



MARIENEA
basauriko Emakumeen etxea
casa de las Mujeres de basauri

HARREMANETARAKO ETA MATRIKULAK EGITEKO

**MARIENEA
BASAUROKO EMAKUMEEN ETXEA**

TELEFONO-ZENBAKIA: 946 124 100

**HELBIDE ELEKTRONIKOA:
MARIENEA@BASAURI.EUS**

**ORDUTEGIA: 9:30-14:30 ETA 16:00-20:30,
ASTELEHENETIK OSTIRALERA
(OSTIRALETAN, GOIZEZ BAINO EZ)**

**HELBIDEA: KAREAGA GOIKOA 54,
48970 BASAURI (BIZKAIA)**

**INSTAGRAM:
@MARIENEABASAURI**

WEBGUNEA: BERDINTASUNA.BASAURI.EUS

DATA ZEHATZETARA BIDERATUTAKO EGITARAUUA:



A25 | Indarkeria Matxistaren
aurkako eguna



M8 | Emakumeen Nazioarteko
Eguna



A26 | M17 | E28
LGTBIQ+ eskubideak
aldarrikatzeko egunak

Argitaratzailea:
Marienea Basauriko Emakumeen Etxea

Ilustrazioak, diseinua eta maketazioa:
Habemus Estudio

Inprimaketa:
Printheus

EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLA

- › Jardueretan parte hartzeko, izena aurretiaz eman behar duzue, tokia dagoen egiaztatu, eta ordainketa egin.
- › Izena Marienean bertan eman ahal izango duzue: telefonoz deitu, bidali mezu elektronikoa, edo izena eman webgunean.
- › Lehentasuna izango dute Basaurin bizi direnek.
- › Matrikula tokia badagoela egiaztatu eta gero ordaindu beharko duzue.
- › % 50eko tarifa murriztua langabezia eta LANBIDEn apuntatuta daudenentzat, DSBEa jasotzen dutenentzat, pentsiodunenentzat eta 18-24 urte arteko ikasleentzat.
- › Doan 18 urtetik beherakoentzat.
- › Haurtzaindegri-zerbitzua aukeran Basaurin bizi direnentzat (aurretiaz eskatuta).
- › Ikastaro elebidunak: edukiak euskaraz eta gaztelaniaz azalduko dira, eta parte-hartzaileek nahi duten hizkuntzan mintzatzeko aukera izango dute.
- › Jabekuntza Eskola Marienea osatzen dugun guztiona da. Horregatik, denon ardura da parte hartzen dugun ikastaro eta jarduerak zaintzea. Beraz, **GOGOAN IZAN**:
 - Zure konpromisoa behar dugu, ikastaroren batean izena ematen baduzu, etorri;
 - ezin bazara etorri, esaguzu;
 - horrela, beste norbaitek zure plaza bete ahal izango du.

Bazatoz?

DENA ALDATZERA GOAZ!

• **Ordutegia:** 18:30 – 20:30

• **Matrikula:** doan *ELEBIDUNA*

EMAKUMEEN ETXEAK: GURE LEKU PROPIOA

Data: abenduaren 12an, osteguna

Emakumeen Etxeak formakuntza, sozializazio eta antolaketa espazio dira, baina garai berriek etxe berriak behar dituzte, irekiak eta mugimenduan daudenak, denonak izango direnak. Horretarako, eztabaida eta hausnarketa nahi ditugu, Marienea elkarrekin eraikitzen jarraitzeko.

4

FEMINISMOA GAUR: EZTABAIDAK, ALTERNATIBAK ETA ERRESISTENTZIAK

Data: otsailaren 13an, osteguna,
eta 14an, ostirala

Greba zikloa inflexio puntu izan da mugimendu feministarentzat. Taldeak eta asanbladak biderkatu egin dira, antolatzeko moduak berrasmatu dira, baina eztabaidetan sakontzea ere beharrezkoa da aurrera egiteko.



POSIBLE AL DA URBANISMO FEMINISTA BAT?

Datak: apirilak 9, asteazkena,
eta 10, osteguna

Espazioa generoak, denborak eta lekuak zehazten dute. Bizi garen espazioak nolakoak diren eta nola eraikitzen ditugun, horiek bizitzeko dugun moduarekin gurutzatzen dira. Hirigintza feminista, hiri zaintzaileak, espazio irisgarriak eta etxebizitza eskubidea dira, besteak beste, jardunaldi hauetan jorratuko ditugun gaietako batzuk.



IDAZLE IPARRAMERIKARRAK PARISEN

LITERATURA IKASTAROA

- **Formatzailea:** Ainhoa Aldazabal
- **Data:** asteazkenetan,
urriak 2, urriak 30,
azaroak 20, urtarrilak 22,
otsailak 19, martxoak 19
eta maiatzak 21.
- **Ordutegia:** 18:00 – 20:00
- **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

XX. mendearen hasieran, idazle asko iritsi ziren Parisera Ipar Amerikatik. Abangoardiako literatura dinamizatzen lagundu zuten sortzaile handiak izan ziren: liburudendariak, argitaratzaileak, itzultzaileak, idazleak dira ikastaro honetan aztertuko ditugun emakumeak.



ZORU PELBIKOA TAILERRA, ETA ASKOZ GEHIAGO...

- **Prestatzaileak:** Vanesa Porret
Isabel Relancio
Saioa Hernandez



- **Datak:** ostegunetan,
urriaren 17tik
abenduaren 19ra

- **Ordutegia:** 17:00 – 19:00

- **Matrikula:** 20 € **GAZTELANIAZ**

Ikastaro honetan, gure gorputzaren kontzientzia hartuko dugu Fendelkrais metodoaren bidez; sendotze-, adierazpen- eta autozaintza-teknika berriak landuko ditugu.

*Ez da jarduera terapeutikoa edo lesioak sendatzekoa.

DANTZA PELBIKOA

- **Formatzailea:** Itziar Arroyo

- **Datak:** ostegunetan,
otsailaren 6tik 27ra.



Martxoan, apirilean eta maiatzean taldeak autonomoki jarraituko du, eta errefortzurako klaseak martxoaren 13an, apirilaren 3an eta maiatzaren 15ean izango dira Emakumeak Aniztasunean taldearekin elkarlanean.

- **Ordutegia:** 18:00 – 19:30

- **Matrikula:** 5 € **GAZTELANIAZ**

Iritzirik gabeko espazio bat sortuko dugu, geure buruekin dantzatzeko, giro partekatuan, eta gorputzetik jolasteko.



AUTODEFENTSA FEMINISTA



Neska gazteentzat (11-14 urte)

- **Prestatzaileak:** Kiskali,
Basauriko Gazte Talde
Feminista



- **Datak:** ostiraletan,
urriak 25, azaroak 15,
abendua 13, urtarrilak 17,
otsailak 21, martxoak 21,
apirilak 11 eta maiatzak 9

- **Ordutegia:** 17:30 – 19:30

- **Matrikula:** doan **EUSKARAZ**

Zein gaik sortzen digu jakin mina? Gorputza, harremanak izateko modua, zer den feminismoa eta LGBTIQ+ borroka... Honetaz guztiaz batera hitz egingo dugu, elkar nola defendatu, zaindu eta maitatu pentsatzen dugun artean.

KOYPEAREN MATXINADA

BARKAMENIK ETA BAIMENIK

ESKATZEN EZ DUTEN LORZAK

- **Prestatzailea:** Laura Galar
- **Data:** asteazkenetan,
azaroaren 6tik 27ra
- **Ordutegia:** 18:00 - 20:00
- **Matrikula:** 5 € **EUSKARAZ**

Sistema gordofoboaren zapalkuntzaren oinarriak eta ardatzak landuko ditugu, baita irudi pertsonalean eta sistemaren edertasun kanonetan dituen ondorioak eta harremanak ere. Hori guztia ikuspegi transfeminista intersekzionaletik.





BRIKOLEA

• **Prestatzailea:** Ana Oveja Uribe
eta Ana Fernández

• **Datak:** astelehenetan,
urtarrilaren 13tik
otsailaren 24ra

• **Ordutegia:** 18:00 – 20:00

• **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Konponketa txikiak egiteko gai izateak gure independentzia eta autoestimua areagotzen ditu. Diru pila aurrezteaz gain, geure kabuz moldatzen ikasiko dugu.



SORORITATEA ESZENARA ANTZERKI INTERSEKZIONALEKO TAILERRA

- **Prestatzailea:** Haizea Murguía
- **Data:** asteazkenetan,
urtarrilaren 15etik
martxoaren 12ra

• **Ordutegia:** 18:00 – 20:00

• **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Tresna eszenikoak proposatuko ditugu gorputzarekin eta ahotsarekin lan egiteko, eta dramaturgiaren eta inprobisazioaren bidez mikropieziak sortzeko.



AUTOZAINZA, AUTOESTIMU ETA AHALDUNTZE SEXUALERAKO TAILERRA

Adimen-desgaitasuna duten emakumeei autoezagutza-prozesuan laguntzeko ikastaroa.

- **Formatzailea:** Saioa Hernandez Gorabiderekin elkarlanean.



- **Datak:** asteazkenetan, otsailak 26, martxoak 26 eta apirilak 30
- **Ordutegia:** 18:00 – 19:30
- **Matrikula:** doan **GAZTELANIAZ**

Gure gorputzak eta emozioak ezagutzean, zaintzean eta mimatzean jarriko dugu arreta, geure burua errespetatuz, gure buruarekin eta inguruarekin harreman osasuntsua izatea merezi dugula sentituz.

FINANTZETAN GU?

• **Prestatzailea:** Patricia Solaun,
Mugarik Gabeko
Ekonomilariak

• **Data:** astelehenetan,
martxoaren 3tik
apirilaren 6ra

• **Ordutegia:** 18:00 – 20:00

• **Matrikula:** 5 € **GAZTELANIAZ**

Zenbat aldiz pentsatu duzu zuk horretarako ez zenuela balio? Deseroso sentitu zara inoiz bankuan? Gure baliabide ekonomikoak kudeatzeko heziak izan ez garen arren, askok ikasi ditugu erabiltzen. Hori guztia partekatuko dugu eraiki nahi dugun eredu ekonomikoari buruz hausnartzen dugun bitartean.



ESKALADARI BURUZKO ZIKLOA PERSPEKTIBA FEMINISTATIK

• **Formatzaileak:** María Francisca Mas Riera
eta Ainhoa García Aragüés

• **Data:** martxoaren 27, osteguna

ESKALADA BIZI DUTEN GORPUTZ ETA BIZIPEN DISIDENTEEI BURUZKO TAILERRA

«INGRÁVIDAS» LIBURUAREN AURKEZPENA

• **Ordutegia:** 18:00 – 19:30

• **Ordutegia:** 19:30 – 20:30

• **Matrikula:** doan **GAZTELANIAZ**

Inguratzen gaituzten aurreiritziak kolokan jarriko ditugu eta zeharkatzen gaituzten zapalkuntzak argitara aterako ditugu gorputz guztiek eskaladaz gozatzeko moduko espazioak eta tresnak sortzeko.

Ondoren...



ESKALADA TAILERRA KANPOAN

- **Prestatzaileak:** Tontxu Larrinaga eta Mari Mar Angulo
- **Datak:** apirilak 5, larunbata, eta 6, igandea
- **Ordutegia:** 10:00 - 18:00
- **Matrikula:** 10 € **EUSKARAZ**

Saiatu zara rokodromotik kanpo eskalatzen? Eskaladan aritzeko kontuan hartu beharreko alderdiak jorratuko ditugu: materialen ezagutza, oinarrizko maniobrak, arriskuak, segurtasun-neurriak... Zatoz gurekin harkaitzean eskalatzera!



... KALEAK GUREAK ERE BADIRELAKO EMAKUMEEN HERRI BAZKARIA BASAURIKO JAIETAN

- **Data:** urriak 14,
astelehena

Badira urteak Basauriko jaietan emakumeen bazkaria ospatzen dugula. Aurten, berriz ere, espazio propio batez gozatuko dugu gure jaietan.

*Bazkarirako tiketak laster Marienean egongo dira eskuragarri.

IV. BASAURIKO EMAKUMEEN HERRI LASTERKETA

- **Data:** maiatzak 10,
larunbata

IV. Basauriko Emakumeen Herri Lasterketa, Marieneako korrikalariak antolatua. Korrikalariak badabiltza entrenatzen...

Animatuko zara?



IKASTURTE AMAIERAKO JAIA

- **Data:** ekainak 7,
larunbata

Ikasturte amaiera berriz elkartzeko unea da, urtean zehar egindako lana ospatzekoa eta etxe barruan gertatzen dena kaleetara ateratzekoa.

Anima zaitez eta parte hartu!



JABEKUNTZA ESKOLAKO TALDEAK

Batzuetan, tailerretan, ikastaroetan eta bestelako topaketetan parte hartu duten zenbait emakumek biltzen jarraitzea erabakitzen dute. Marieneak talde horiek babesten ditu, eta erabiltzaileen eskura jartzen ditu dauden baliabideak. Ezagutu taldeak!

01 ELKARREKIN IBILTZEN

Elkarrekin ibili elkar ezagutzeko, lagunduta joateko, sareak ehuntzeko, elkarri laguntzeko... sasoian egoteko. Asteazkenero 10:00etan irteten gara Marieneatik.

18

02 TREBETASUNAK TRUKATZEKO TALDEA

Guretzat garrantzitsuak diren gaiak lantzeko eta ekimenak antolatzeko elkartzen gara. Aurrera egin nahi dugu, emakumeok osatutako sare bat sortzeko eta elkarri laguntzeko, elkar zaintzeko, talde baten parte izateko eta trebetasunak trukatzeko.

03 MARIENEA KORRIKALARIAK

Marieneak Korrikalariak

Elkarrekin korrika egiten dugu, eta horrek indartsu egiten gaitu. Kirola kaleak hartzeko beste modu bat dela uste dugu, eta ikusgarri bihurtzen gaitu. Ez dugu korrika egiten ihes egiteko, korrika egiten dugu erronka berriei aurre egiteko. Ez gara eliteko kirolariak; horregatik, zuk ere lekua duzu gure entrenamenduetan.

Animatu zaitez!



04 TOPAKETA SORTZAILEAK

Margotu, collage egin, edo argazkiak brodatu nahi dituzu? Bi asteartetik behin biltzen gara 18:00etatik 20:00etara eta partaide berriei irekita gaude. Atera zure barruko artista goatzera!

05 EMAKUME FEMINISTA ZAHARRAK

Etor zaitez Basauriko emakume zaharren egoeraz ikuspegi feministatik hausnartzera, baditugu proposamenak eskubide kolektiboa den zaintza feminista gauzatzeko Basaurin. Hamabostero biltzen gara astearte goizetan Marienean

06 BASFEMBAND

Danborrak elkarrekin jotzen ditugu, eta erritmoa jartzen diegu feministen aldarrikapenei espazio publikoan. Astero elkartzten gara, eta sarean lan egiten dugu beste banda batzuekin.



07 ESTEREOTIPAK OSASUN MENTAL FEMINISTA



Osasun mentaleko elkarte feminista bat gara, osasun mentalari buruz hausnartzeko biltzen garenok, estereotipoak hausteko eta gizarte-aldaketaren alde modu kolektiboan ahalduntzeko.

Parte hartzeko eta informazio gehiago @estereotipak.

HERRITAR GUZTIENTZAKO JARDUERAK

* Jarduera guztiak doakoak dira

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA ETA BIZIRAULE DIREN EMAKUMEEN ERREALITATEAK, ETA INDARKERIA PREBENITZEKO ETA ARTATZEKO PRAKTIKA ONAK. KOLONBIA – BIZKAIA

SENTSIBILIZAZIO JARDUNALDIA

- **Data:** urriak 3,
osteguna
- **Ordutegia:** 17:00 – 20:00

HAURREN AURKAKO SEXU ABUSUEN INGURUKO LIBURU AURKEZPEN ZIKLOA

Ezjakintasun handia dago haurren sexu abusuen benetako tamainaren inguruan, baina badakigu indarkeria matxistaren aurkako borroka dela hori prebenitzeko gakoa. Hori dela eta, ziklo honetan haurren aurkako indarkeria mota larrienetako bati helduko diogu.

LOLAREN BIZIKLETA

- **Egileak:** Alba Barbé eta Laia Pibernat
- **Data:** urriak 9,
asteazkena
- **Ordutegia:** 18:00 – 20:00 **GAZTELANIAZ**





el pececito

Yodög

«YODÖG»

- **Egileak:** Pepe Godoy eta Jon Espinar
- **Data:** otsailak 19, asteazkena
- **Ordutegia:** 19:00 – 20:30
- **Lekua:** Ibaiganen **GAZTELANIAZ**

«EZ ERRAN INORI»

- **Egilea:** Maddi Ane Txoperena
- **Data:** maiatzak 28, asteazkena
- **Ordutegia:** 18:00 – 20:00 **EUSKARAZ**




ZAINZA: EGITEKE DUGUN **IRAULTZA. BESTE EREDU** **BAT POSIBLE DA**

• **Hizlariak:** Amaia Pérez Orozco eta Arantza Urkaregi, Feminista Zaharren Taldearekin lankidetzan.

• **Data:** urriak 30, asteazkena

• **Ordutegia:** 18:00 – 20:00
GAZTELANIAZ

Zaintza lanez hausnartzeko tarte irekiko dugu hitzaldi honetan, gure inguruan lan honek hartzen duen forma ezagutuko dugu eta haren demokratizaziorako eman beharreko pausuez arituko gara. Zer desberdinkeria eragiten ditu egungo zaintzaren antolaketak? Zein da guk proposatzen dugun eredua? Eta zein da bertara iritsi ahal izateko bidea?



ZINEMAKUMEAK GARA!

• **Data:** azaroak 14, osteguna

• **Ordutegia:** 19:00
GAZTELANIAZ

• **Lekua:** Social Antzokia

Urtero bezala Zinemakumeak Gara! eta Social Antzokiarekin elkarlanean arituko gara emakumeek zuzendutako pelikula bat proiektatzeko.

IRANTZU VARELA

Y toboria...

2 de zorrik

1) Staqas...

Bazan

Canar

Desnudes

ESquifol

Feliz

LO QUE
QUEDE

Quec

Rakel

Sard

Tadob

Varesti

Varela

W

X de m

Yugo

Zierben

Spibit?

«LO QUE QUEDE»

LIBURU AURKEZPENA ETA SOLASALDIA

- | | |
|--------------|----------------------------------|
| • Egilea: | Irantzu Varela |
| • Data: | azaroak 27,
asteazkena |
| • Ordutegia: | 18:00 – 20:00 GAZTELANIAZ |

“Queda lo escrito, todo lo demás no queda”, idatzi zuen Emilia Pardo Bazán-ek, eta Irantzu Varela, euskal komunikatzaile, feminista, bollera eta aktibista lodiak (eta Basaurikoa), hitzok berrartu eta eraldatu egin ditu. Memoria autopornografikoetan murgil gaitzezen gonbidatu gaitu, egun den hori izatera nola iritsi den kontatzeko. Erreparazioaren faltan, edo haren zain, “Lo que quede” bitizakoa arintzeko izan dadila.



Sexu Informazioko
Bulegoarekin
lankidetzan.

Arauaren mugetatik ateratzea, sexualitatea eta generoa beste nonbaitetik esperimentatzea eta bizitzea, kolektiboaren erresistentzia praktikak eta militanteen bizi istorioak ezagutzea. Disidentzia guztientzako segurtasun eta askatasun gune bat sortu nahi dugu Anitzera zikloko tailer eta hitzaldietan.

«LUMAREN ATZEAN DIAMANTES EN BRUTO» DOKUMENTALAREN PROIEKZIOA ETA SOLASALDIA

- | | | |
|---------------------|---------------------------|------------------|
| • Egilea: | Anitzak | |
| • Data: | maiatzak 7,
asteazkena | |
| • Ordutegia: | 18:00 – 20:00 | ELEBIDUNA |

Dokumentalak drag-a ikuspegi intimista batetik ikusteko aukera ematen digu, artista bakoitzak drag-a egiteko bere istorio eta motibazio propioa dituela erakutsiz. Haien testigantzen bidez, hobeto uler dezakegu drag-aren munduaren konplexutasuna eta aniztasuna, eta nola izan daitekeen adierazpen artistikorako eta identitatearen aldarrikapenerako bide baliotsua, baita LGTBIAQ+ komunitatearentzat ezinbesteko tresna ere.



DRAG TAILERRA

- **Formatzailea:** Irene Ibisate
- **Data:** maiatzak 15, osteguna
- **Ordutegia:** 18:00 – 20:00 **GAZTELANIAZ**

“Generoarekin” jolastea eta performatzea izango da tailer honen helburua, non sormen eta dibertimendu-giroa sortuko dugun.

ZAHARTZEAK ETA SEXU ETA GENERO ANIZTASUNAK

- **Hizlaria:** Josep Maria Mesquida
- **Data:** maiatzak 29, osteguna
- **Ordutegia:** 18:00 – 20:00 **GAZTELANIAZ**

LGTBIQ+ kolektiboko kideek askotariko zaugarritasunak eragiten dituzten desberdinkeriak bizi dituzte haien bizitzetan, baita zahartzean ere. Hitzaldi honen helburua zahartzaroa begirada interseksionaletik aztertzea eta zahartzaroan LGTBIQ+ komunitateak hartzen dituen formez hausnartzea da.

JO!

UMORE, EUSKARAZ ETA FEMINISMOTIK

• **Egileak:** Beatriz Egizabal eta Anduriña Zurutuza. Marieneako Euskara Batzordearekin lankidetzan.

• **Data:** maiatzak 22, osteguna

• **Ordutegia:** 19:00 **EUSKARAZ**

Sorkun eta Grego lagun minak, aspaldi elkarrekin egon gabe egon dira. Zergatik? Klean topo egin eta kirola egiten duten bitartean ikerketa antropologiko bat eskeniko digute. Erabiliko duten metodologia bizitza istorioak izango dira.



ERAKUSKETAK ETA HORIEI LOTUTAKO JARDUERAK

Bisita librea, 09:30-14:30 eta 16:00-20:30,
astelehenetik ostiralera (ostiraletan,
goizez baino ez).

Marienea zabaldu zenetik, artista askoren
lanak egon dira ikusgai Emakumeen
Etxean: ilustratzaileak, margolariak,
argazkilariak...

Artista bazara eta emakumeari zein
feminismoari buruzko artelanak badituzu,
Marienea da zure erakusketa antolatzeko
lekua.

Jarri gurekin harremanetan, eta erakutsi
zure lanak!



«AHALAM, BIZITZA BATEKIN AMESTUZ: LIBANOKO EMAKUME PALESTINAR ERREFUXIATUEN ISTORIOAK»

- **Egilea:** UNRWA
- **Datak:** urriaren 25etik
azaroaren 4ra
- **Hitzaldia eta inaugurazioa:**
urriak 25, ostirala,
18:00-20:00

Suha Najar palestinar errefuxiatuarekin hitz egingo dugu, okupaziopeko emakume palestinarrez, eta «Ahalam, batekin amestuz: Libanoko emakume palestinar errefuxiatuen istorioak» komikiaren aurkezpena izango dugu ikusgai.



MAITE ALBIZ DOKUMENTAZIO ZENTROKO KARTELEN ERAKUSKETA

- **Egilea:** Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroa
- **Datak:** abenduaren 16tik
otsailaren 24ra

Urteetan zehar mugimendu sozialek modu ugari erabili dituzte euren aldarrikapenak eta deialdiak helarazteko. Mugimendu Feministak egindako kartel enblematikoak biltzen ditu erakusketa honek, borroka ezberdinen ingurukoak, horietako asko gaur ere presente ditugunak.

ERRESISTENTZIA FEMINISTAK!

- **Egilea:** Feministalde!
- **Data:** martxoaren 3tik
apirilaren 10era

Covid-19ak eragindako pandemian zehar, emakumeen borrokek auzo eta komunitate sareak aktibatu zituzten. Erakusketa honekin Uruguai, Brasil, Mexiko eta Bizkaiko bost artistaren lanen bidez, erakutsi nahi ditugu erresistentzia feminista, antiarrazista eta internazionalistako esperientzia kolektiboak. Bakoitza bere lurraldetik baina antolatuak, uko eginez mundu osoan gero eta pertsona gehiago kanporatzen, deshumanizatzen eta bortxatzen dituen sistemarekin konformatzeari.



BOLLOLOGIA

- **Egilea:** EHko Bollotopaketetako antolatzaileetako batzuk
- **Data:** apirilaren 15etik
ekainaren 16ra

40 urte pasa dira 1983an mugimendu feministaren baitan I. Lesbianen Topaketak antolatu zirenetik. Baina hori baino lehen ere bagenbiltzan, eta ordudanik bagabiltza. 1977tik 2010. urtera arteko bolleren borrokari begira jarri gara; mugimenduaren eraketari, euren aldarrikapenei eta beste borrokekin izandako harremanari.

IRAILA 2024

							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30							

URRIA 2024

		1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13	
14	15	16	17	18	19	20	
21	22	23	24	25	26	27	
28	29	30	31				

AZAROA 2024

					1	2	3
4	5	6	7	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30		

ABENDUA 2024

							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30	31						

URTARILLA 2025

		1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	21	22	23	24	25	26	
27	28	29	30	31			

OTSAILA 2025

						1	2
3	4	5	6	7	8	9	
10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	
24	25	26	27	28			

MARTXOA 2025

						1	2
3	4	5	6	7	8	9	
10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	
24	25	26	27	28	29	30	
31							

APIRILA 2025

	1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13	
14	15	16	17	18	19	20	
21	22	23	24	25	26	27	
28	29	30					

MAIATZA 2025

		1	2	3	4		
5	6	7	8	9	10	11	
12	13	14	15	16	17	18	
19	20	21	22	23	24	25	
26	27	28	29	30	31		

EKAINA 2025

						1	
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30							



GAINERA MARIENEA...

BERDINTASUN ARLOA

946 124 107
marienea@basauri.eus

EMAKUMEEN INFORMAZIO ZENTROA

946 124 101
cim-administracion@basauri.
eus

SEXU INFORMAZIO BULEGOA

946 124 106 - 900 101 709
sexologia@basauri.eus

HEZKIDETZA PROIEKTUA 1ERA 2KAIN

946 124 103
baterabikain@basauri.eus

